

Iñigo Landa Ijurko

PELEGRİÑENE:
“LA CASERIA DE PELEGRIN”

“Llegué por caminos de barro. Por caminos que se van a borro para siempre. Llegué bajo un cielo plateado tras la tormenta. A lo lejos, azules y violetas, los montes de la frontera de Navarra se cortaban suavemente, casi callando, casi llorando.”

(Luis Pedro Peña Santiago Pelegrinene)

Herritarren eta historialarien artean oso zabaldua eta errotua dago Altzako Pelegrinene baserria Santiago bidearekin lotzen duen tradizioa. Datozen lerroetan, ordea, saiatuko gara azaltzen tradizio hori berri samarra dela eta Santiago bideak gure mendean ezagutu duen pizkundearen ondorioa besterik ez dela. Izan ere, pentsatzen dugu tradizioak ez duela funtsik eta Pelegrinene ez dela inoiz izan pelegriñen ospitalea edo antzeko ezer ez. Oinarri eta tradizio handiagoa duen argudioari jarraituz, etxearen izenak jabegoa adierazi nahi duelakoan gaude, alegia, Pelegrin izeneko pertsona baten etxea zela.

Pelegrinene mitoaren sorrera eta zabalkundea

Azken hamarkadan Santiago bidearen inguruan nolabaiteko gehiegizko informazioa izan dugu komunikabideetan eta liburugintzan, neurri handi batean, turismo masiboaren beste alternatiba bezala eskaini zaiguna. Oinarri

espiritual sakona eta historia luzea duen peleginazio hau, ordea, etengabeko gainbehera nabarmenaren ondoren heldu zen XX. mendera. Izan ere, Aro Modernoan Europa barruko erlijio gerlak hasieran, eta estatu-nazioen artekoak gero, oztopo fisiko eta ideologikoak izan ziren peleginaziorako. Hori guztiagatik, XIX. mendean liberalismoaren ideologiaren eta positibismoaren eraginez, peleginazioak eta peleginen kopurua ikaragarri murriztu ziren. Bi joera hauen aurrez aurre, txanpon baten bi aldeak bezala, batetik, tradizionalismo elizkoa eta bestetik erromantizismoa izango dira erreakzioaren protagonistak.

Santiago bidea berreskuratze prozesuan bi indar gailenduko dira. Batetik, fedea. Sinestunentzat bizitza peleginazioa denez, honek berebiziko garrantzia izango du bere praktika erlijiosoan. Jerusalem, Erroma eta Santiago izan dira kristautasunaren peleginazio nagusiak, edozeinen esku ez zeudenak. Gertuago, Arantzazurako edota Lourdeserako peleginazioak, kasu, oso herrikoiak izan dira. Esan bezala, XIX. mendean Elizak gogotsu erreakzionatu zuen ideologia laikoen aurka, eta honen ondorioa izan zen peleginazio berrien sorrera, eta zaharren berreskurapena, gehienak Ama Birjinaren agerrialdiarekin loturik. Esandakoaren adibide ezagunenak Lourdes eta Fatima dira, 1858 eta 1917 urteetakoak. Giro honetan, Aita Santuak, positibismoz kutsaturik agian, Compostelako katedralean aurkitutako gorpuak Santiagorenak eta bere bi dizipuluenak zirela egiaztatu zuen 1884. urtean. Arrazoi ideologikoekin batera badira izaera ekonomikoa duten beste arrazoiak ere praktika hauek sustatzeko. Peleginazioak turismoaren itxura hartu du, edota alderantziz, turismoak peleginazioarena, izpirituaren kontuak eta kontsumoa elkarrekin kutsatuta eta nahastuta.

Aldi horretan sortu zen Pelegriñeneren mitoa. "XIX centenario del martirio del apóstol Santiago" oroitzeko asmoz, Instituto de España delakoak Santiagorako peleginazioak sakonki ikertzeko lehiaketa bat antolatu zuen. Irabazlea Luis Vázquez de Parga, José María Lacarra eta Juan Uría Riu hiru-kotea izan zen eta ikerketa 1943 eta 1944 urteetan zehar burutu zuten. Hiru liburukitan burututako eta zehaztasunez beteriko lan mardulean lehen aldiz aipatzen da Pelegriñene baserria Santiago bidearen pausaleku zela. Baionatik Burgoserako bidea deskribatzen ari dela zera esaten du: "*Recuerdo del paso por este camino es la casa llamada Pelegriñanena, cuya fachada ostenta una o dos conchas de peregrino grabadas en la piedra*". Orrialde batzuk aurrerago, kostako ibilbideaz ari dela, berriro aipatzen du: "*...atravesando el río Oyarzun entre este último lugar y el de Ancho, en cuyo intermedio tenemos como recuerdo de la peregrina*

1 VAZQUEZ DE PARGA, LACARRA, URÍA: Las peregrinaciones..., 2. tomoa, 443. or.:

ción una casa llamada Pelegrinene, que ostenta esculpidas en la piedra de la fachada dos conchas o veneras. Desde aquí se pasaba al barrio occidental de Pasajes, llamado de San Pedro"² Dena den, egileek ez digute esaten zehatz-mehatz informazioa nondik jaso duten.

Urte batzuk beranduago, 1957. urtean, berriro datu honen berri izango dugu, oraingoan Fausto Arozena historialariaren eta artxibozainaren eskutik. Arocenak "Rutas de peregrinos en Guipúzcoa" izenburuko artikuluan³, Serapio Mugicaren ahotan jartzen du informazio hau. Esan beharra dago, Serapio Mugicak (Ormaiztegi, 1854-Donostia, 1941) Gipuzkoako geografari eta historiari buruz asko eta luze idatzi bazuen ere, inon ez ditugula datu horiek idatzirik aurkitu. Gainera, kontuan hartzekoa da Lacarraren taldeak eta Arocenak, ustez Mugicak esan zuena argitaratu zutenean, hau ordurako hilik zegoela, beraz, ez zegoen informazio hau berresteko ezta ukatzeko modurik ere.

Honela dio Arocenak: "*Además de todo esto, hay un caserío ~~de Peimenea~~, que en la voz popular se resuelve en 'Pelegrin' o 'Pelegrinene', el cual viene a estar inscrito dentro de la ruta de la costa. Dice don Serapio Múgica que en su fachada se descubrían bordones y veneras. Pero Ricardo Izaguirre, que a su condición de gran investigador une cierta predilección hacia lo topográfico, nos hace saber únicamente que conserva de tiempos pasados una cruz, una puerta y una ventana, y sobre todo -añado yo- esa denominación de Pelegrinene que lo dice ~~Beraz~~*", izenak dena esaten omen du eta hau izango da argudiorik indartsuena.

Urte batzuk beranduago, 1964. urtean, berriro ere aipatuko du baina oraingo honetan ñabardura gehiagoz eta gure ustearen ildotik: "*Además de todo esto hay un caserío denominado Peregrinenea, que viene a estar inscrito dentro de la ruta llamada de la costa **Esa denominación podría acaso provenir de algún Pelegrín de nombre** que viniese a ser habitador de ese caserío; pero ~~por~~ **por** una circunstancia de que, según Serapio Múgica, se descubrían en su tiempo bordones y veneras, lo que me parece -no lo puedo asegurar, porque la inspección ha sido muy somera- que no ocurre hoy, aunque es evidente que, como nos hace saber ~~de~~ **de** Ricar Izaguirre, conserva de tiempos pasados una cruz, una puerta y una ventana de cierto carácter ~~arqueológico~~ **arqueológico***" Lehen aipamenean oso argi bazuen izenaren jatorria, hau da, Pelegrinene Santiagora doazen pelegriñenetan oinarritua zegoela, bigarren honetan, aldiz, beste bide bat urratu du, hain zuzen ere, baserriaren jabearen izenarena izan zitekeela.

² Iden, 502. or.;

³ AROCENA: Rutas..., 12. or.

⁴ AROCENA: El camino..., 40. or.

Pelegriñene Santiago bidearekin lotzearen aldeko asko eta izen handikoa izan dira, hala nola, Jose Maria Donosti, Peña Santiago eta Orella⁵, seguru asko Mugica, Lacarra eta Arocenaren itzal handiaren gerizpean. Hala ere, Gipuzkoan Santiago bideari buruz jardun direnen artean badago salbuespen garrantzitsu bat, Manuel Lekuona, bere idazlanetan Pelegriñene kontuan hartu ez zuena.

Manuel Lekuonak sakonki aztertu zuen Santiagorako kostata-bidea eta Lacarrari eskertu zion bere liburu ospetsuan bide hau aintzat hartu izana. Aldi berean, Lacarrak bidearen deskribapenean erakutsitako hainbat akats zuritu zuen. Lacarrari ez zegokion, Lekuonaren esanetan, bidearen zehaztasunak ezagutzea, bertakoen lana baitzen hori⁶. Lekuonak bere gain hartu zuen eginkizun hori eta inork baino hobeto bildu eta ezagutu zituen kostako bideari buruzko zehaztasunak. Berak zioenez, historia egiteko orduan datu dokumentalak ez ziren nahikoak, eta beste motako iturri eta aztarnak (arkeologikoak, etnografikoak, erlijiosoak...) hartu behar ziren kontuan historia ulertzeko.

Xede hau goiburu ekin zion lanari eta Gipuzkoan kostako bidearen bi zati bereizi zituen, "Goierrri-bide" eta "Beterrri-bide", Altzako Pelegriñene eta ondotik pasatzen den bidea bide horietatik kanpo geratzen zirelarik. Dударik gabe, Lekuonak ezagutzen zituen Pelegriñeneri buruzko aipamenak baina ez zituen antza denez aintzat hartu. Goierrri-bidea, zaldiz egin zitekeena, leku hauetatik igaroko zen: "*Errenteri-eria eskui utzirik, Zamalbide'n bæna (Zamari-bide = 'Camino de caballerías'), Astigarraga'ko Bentara iristen ziran; eta andik, Santiyago-mendin zear, Astigarraga' ko Ergobia'ra jetxi (Ergo-ibia = 'vado de Ergo'), eta andik Ernani'n barrenä...*

Beterrri-bidea zen bestea, oinez eta batelak erabiliz egingo zena, honako hau: "*Lezotik Errera'raño: pasadizu onengatik bait deritza itxas-troxu au, gaur oraindik deritzan bezala: 'Pasaya'. Urrengo oñezko troxua, Era'tik Donostia'rakoa zan: Mirakruz'en bæna, -andikan iru Gurutze Santu ikusten, alegia: Lezo, Mota eta Ayetë⁷.*Lekuonak, ezta gain-gainetik ere, Pelegriñene kontuan ez hartzea ez da huskeria.

Hori guztia dela eta, lehen ondorioa atera dezakegu; hots, Pelegriñene XX. mendean Santiago bidearen berpizkundearekin batera errotu den mito berria dela. Izan duen arrakasta Lacarrari eta Arocenari zor die batez ere,

5 DONOSTI: San Sebastián..., 48. or.; PEÑA SANTIAGO: Pelegriñene...; ORELLA: El Camino..., 197 or. jarraitzen dute aurrekoek esaten dutena: "... en cuyas fachadas hay bordones y veneras con puertas y ventanas de época medieval."

6 LEKUONA: Las antiguas..., 336 or.

7 LEKUONA: Santiyago-bideak..., 302 eta 306 or.

haien ospari esker historialariek eta zaletuekitsu-itsuan onartu baitute. Uste honen oinarrian dauden datuak ez dira kritikoki aztertu, are gehiago irudimenari atek zabaldu zaizkio, beteak beste, baserri xume bat aterpe-ospitale bihurtuta⁸. Datozen lerroetan ahalegin honi ekingo diogu, alegia, Pelegriñene Santiago bidearekin lotzeko aipatu ohi diren datuen azterketari. Funtsean argudioak hiru dira: horman zizelaturiko maskorrak, alboko paretan dagoen gurutzea eta Pelegriñene izena bera. Mazkorrei buruz ez gara luze arituko Serapio Mugicaren ahozko aipamena baino ez baitago eta behatzera bertaratutako horren garaikideek ez zituzten aurkitu⁹.

Pelegriñeneko gurutzea

Angel M^a Calvo eta Manuel Lopez¹⁰ Aranzadiko kideei esker badakigu harrizko gurutzeak baserri gailurretan eta paretetan jartzeko ohitura Gipuzkoan barrena zabalduta dagoela, baina batez ere kostaldean, eta bereziki ipar-ekialdean; Gipuzkoan aurkitu dituzten hirurogeita hamar bat gurutzetatik, hogeita hamabost Urumea eta Bidasoaren arteko eskualdean daude. Altzan halako gurutzeak bost baserritan ikus ditzakegu; teilatuko gailurrean duten bi: Marrus eta Iparragirre. Paretetan txertatuak dituzten hiru: Tomasene, Intxaurrondo-aundi eta Pelegriñene.

Etnografoen artean hedatuen dagoen iritziaren arabera, eta aipatutako autoreek jasotzen dutena, gurutzearen funtziorik nagusia etxeari babesa ematea da. Kristautasunaren adierazpen nagusia izanik, gaur egun arte erabili izan da etxea babesteko: adibidez, etxe-sarrerako atean egurrezko gurutzeak ipiniz. Babesa beharrezkoa da naturak ekar ditzakeen kalteen kontra; ekaitzek eta tximistek eragiten zituzten suteez batez ere, eta baita ere, jatorri ikusezina duten gaitzen kontra, hala nola gaixotasuna eta zorte txarra. Horregatik, gurutzeak mendebalerantz eta iparralderantz orientatuak daude, edo, bestela, bideari begira, arrotzak ibiltzen diren bideei begira, hortik etor baitaiteke gaitza.

8 Hau gertatu da, hain justu, pasa den 1999. urtean, "Jakobeo'99" zela eta ospatu zen filatelia erakusketarekin batera argitaratu zen foiletoarekin. Erakusketaren motiboarekin zigilu-marka bat egin zuten Correos-ekin batera non Astigarragako alabastrozko Santiagoren irudiarekin batera Pelegriñene baserriaren fatxada nagusia irudikatzen zen. Foiletoaren barruan, J.A.L. laburduraz sinatutako testu bat eta Antonio Tristan-en beste bat eskaintzen ziren orain arte esandakoak errepikatuz eta, beste daturik gabe, zabalduz.

9 Astigarragako baserrietan, Santiagomendiko kareharri beltzez eraikiak izan direnak, erraza da belemnites eta pekten fosilak ikustea, pelegriñen esku-makila eta mazkorraren irudia nolabait.

10 CALVO, LOPEZ: Cruces....

Itxuraren aldetik, honelako ezaugarriak dauzkate, oro har, Gipuzkoako gurutzeek: *“De piedra arenisca, son sencillas sin ornamentación ni inscripciones. Predomina la tipología latina de brazos rectilíneos, hay ejemplares lobulados y trebolados. El fuste a veces no es visible y disponen de una amplia base que facilita su firmeza y sujeción; a veces fuste y base se confunden.”* Egile hauek neurria, batez beste, 60 x 50 cm-koa izan ohi dela diote. Pelegrineneko gurutzearen itxurak eta neurriak deskribapenarekin bat egiten dute, hein handi batean. Hareharrizko (deztera edo “Uliya-arrizkoa”, Tellabidek¹¹ dioenez), gurutze latindarra da, apaingarririk eta grabaturik gabekoa, eta 60 x 45 cm-ko tamainaduna.

Calvok eta Muñozek diotenari jarraituz, etxe barrukoan, gurutzearen parean, zulo bat zegoen kandelen keak belztua. Ez dago tradizioz, ordea, ez ahozkoa ezta idatzia ere, altzatarren erromeria edo otoitz-leku zela adierazteko. Agiri bat badago baieztapen hau berrestera datorrena. San Martzial parrokiaren erretorea zen Manuel Casaresek 1733ko maiatzaren 22an Altzako parrokiari buruz Iruñeko apezpikuari bidalitako txosten batean egiaztatu zuen: *“Y no hay hospital, fábrica, colegio, ni comunidad ninguna en este dicho lugar. Sólo hay dos ermitas: la una llamada basílica de nuestra señora de Húa, y la otra Santo Cristo de la Herrera, que están sujetas al ordinario, como también hay cuatro oratorios: la una en la casa nombrada Carbuera de suso, la otra en la nombrada Inchaurre, la otra en la nombrada Pellicer y la cuarta en la nombrada Gordaplat.”*¹²

Pelegrineneko gurutzeak, beraz, mota honetako gurutzeen ohiko itxura eta neurriak ditu. Bidearen aldeko fatxadak kokatuta, ondoko Marrus baserrian bezalaxe, etxea gaitzaz babesteko jarriko zuten seguruenik. Eta bideari begira badago ere, ez dugu pelegrinen bidearekin lotzeko arrastorik.

Pelegrin izena abiapuntu

Santiago bidearekin erlazionatzeko erabili izan ohi den beste argudio bat izenarena izan da. Mitxelenak¹³ zioen, “-ene” atzizkia “-ena” atzizkiaren aldaera bat dela, hau da, norena den adierazten du. Oso erabilia izan da izen, abizen eta izengoitiakin. Baserri honen izenaren aipamen zaharrena, orain arte dokumentatu ahal izan duguna, behintzat, 1635. urtekoa da: Pelegrinena. Geroago aldaera ezberdinak izango ditu: Pelegrinarena (1702), Peregrinena

11 TELLABIDE: Pelegrinena.

12 GOÑI: Las parroquias..., 259. or.

13 MICHELENA: Apellidos..., 83. or.

(1761), Pelegrinenea (1782), Pelegriñene (1861), Pelegrin (1864). Ondorioz, pentsa daiteke baserri hori Pelegrin izeneko norbaitena zela. Eta hala iradoki zuen Fausto Arocenak berak, hitz erdika izan bazen ere.

Bitxia al da Pelegrin izena? Inola ere ez. Gaur egun gutxi entzuten bada ere, izen honek tradizio handia du kristautasunean¹⁴, eta oso erabilia izan da zenbait lekutan eta garaitan. Gaskonian oso arrunta izan da, eta honen eraginez, agian, baita Donostialdean ere.

Dokumentuei begiratu arin bat eginez gero, XVI. mendearen lehen erdialdean, Donostian soilik, Pelegrin izeneko hauekin egin dugu topo: Pelegrin de Laguras (Altzako Labeas baserriaren jabe zena), Pedro de Pelegrin, Pelegrin de Corrovedo, Pelegrin de Laborda, Pelegrin de Asteasu, Pelegrin de Arpide, Don Pelegrin apaiza, Pelegrin de Hoa eta Pelegrin de Ronçesvalles.

Horiek guztien artean bada etxearekin zerikusi zuzenik duena: Pelegrin de Arpide. Pelegrin de Arpide izena behin eta birritan aurkitzen dugu Donostian 1489 eta 1619 urte bitartean, gure ustez, familia baten hiru belaunaldiei dagokiena. Lehen aipamena 1489. urtekoa da, eta horri esker badakigu Donostiako Santa Maria kalean, egungo kale Nagusian, Pelegrin de Arpide bat eta bere emazte Catalina bertan bizi zirela¹⁵. 1581. urtean beste Pelegrin de Arpide bat aurkitu dugu Puyuelo kalean¹⁶, egungo Fermin Calbeton kalean, eta baliteke Pelegrin hau 1607 eta 1619 urte bitartean, Donostiako kontzejuaren enkarguz, zenbait lan besteak beste burutu zituen "maese cantero" edo hargin-maisua izatea, iturri bat Ulian eta antzoki bat hirian¹⁷.

Dena den, harira ekarri nahi dugun Pelegrin beste bat da, 1521. urtean Donostian erregidore, lur-erosle, inbertitzaile eta artekari zena¹⁸, eta 1527 eta 1545 urte bitartean Altzako Merkader etxearekin estuki lotuta egon zena. Pelegrin de Arpide eta Merkader etxearen arteko harremana gora beherez josita egon zen, engainua, zorrak eta abar tartean.

14 San Pelegrin Auxerre-ko (Borgoina) gotzaina eta martiria izan zen III. mendean eta bere festa maiatzaren 16an ospatzen da. Honetatik aparte indizean badira gutxienez beste zazpi Pelegrino edo Peregrino.

15 LARRAÑAGA, LEMA: Colección..., 124. or.: "...e ha por linderos por la una parte el solar de Domingo de Lastur e su muger, Catalina d'Uyçi, e por la otra la casa de Pelegrin d'Arpide e su muger Catalina, e por delante la dicha calle real que disen de Santa Maria e por detras el muro del ospital con su corral e plaça e logar de latrinas e aguaves, que es el dicho corral logar de latrinas e aguaves detras las casas de los dichos Pelegrin d' Arpide e su muger fasta el muro del dicho ospital."

16 Tolosako Agiritegi Orokorra, PT 73, 9v.

17 MURUGARREN: Cuaderno..., 37. eta 104. or.

18 MUJICA: Curiosidades..., 271. or.

Bi protagonista hauekin batera eta auzien jatorri bat, lursail baten izena dugu, *Oyancho*geroago bi baserrien orubea izango dena: Kataliñene eta Pelegriñene.

Mercader etxearen gainbehera

Mercader abizena zaharrenetakoa da Altzan, baina beste batzuk ez bezala (Casares, Arzak...) etorkizun apalagoa izan zuen. San Martzial parrokiaren sorreran, 1390. urtean, Juan de Mercaderrek parte hartu zuen eta berrehun urtez etxearen jabetza sendotu eta finkatu egin zen.

Alabaina, XVI. mendearen hasiera izango da familia honen zoritxarra ekarriko duena eta lurjabe izatetik maizter eta baserritar xume izatera bultzatuko dituen. 1505. urtean haritz bat mozten ari zela, hau bere buru gainean erori eta Martin de Mercader, Mercader etxearen nagusia, hil egin zen testamentua egin gabe. Alarguna, Mariacho de Ecogor, eta lau seme-alaba koxkor utzi zituen, Juanes, Simona, Maria Martin eta Catalina. Alargunak, senarraren familiakoekin bildu ondoren, Juanes semea Lasarteko Margarita de Sasoetarekin ezkontzea erabaki zuen, eta hala egin zuten 1515eko apirilean. Ezkontzearekin batera, Juanesek hartu zituen *“la dicha casa de Mercader con todas sus pertenencias e vastago de casa e algunos ganados vacunos e ovejunos e algnos bueyës*

Hogeita lau urte beranduago, 1539ko apirilean, Juanes de Mercader hil egin zen baserritar xume zela, batere jabetzarik gabe. Gainbehera hau auzikate batean islatuko da:

1531-1533: Juan de Mercaderrek Pelegrin de Arpideren aurka, Oyancho sagastiaren erosketagatik ez diolako ordaindu¹⁹.

1535-1537: Margarita de Sasoeta, Pelegrin de Arpide eta Jofre de Yarza-ren aurka, Merkader etxearen gordetzaile direnak, ez diotelako mantenurako dirua pasa²⁰.

1535-1545: Pelegrin de Arpidek Juanes de Mercaderren aurka, 11.000 marabediko zigorra ordaindu behar ziolako²¹.

1539-1542: Juanes de Mercader gazteak Pelegrin de Arpideren aurka, bere aitak Arpideren eskuetan utzi zuen Merkader etxearen salmentaren etekina berreskuratu nahi zuelako²².

19 Valladolideko Errege Kantzelaritzako Agiritegia (VEKA). Civiles. Masas. Fenecidos. C 2139/3-L 501

20 VEKA. Civiles. Masas. Fenecidos. C 116/3

21 VEKA. Civiles. Masas. Fenecidos. C 459/3

22 VEKA. Civiles. Varela. Fenecidos. C 3746/5 - L 736

Dokumentuetan argi eta garbi geratuko den bezala, gainbeheraren arrazoia zorren pilaketa izan zen eta gainbehera hau, batez ere, bi unetan nabarmenduko da: bata, Oyancho lursailaren salmentan, eta bestea, Mercader etxea bera ere saltzeko beharrean dagoenean. Handik gutxira, Juanes de Mercader hil egin zen alarguna eta Juanes semea miseria gorrian utziz, "*pobe de solemnidad*" Juanes de Zubietak, Errenteriako alkateak, ziurtatu zuen bezala.

Hasteko, zorrak bildu zituen bere emaztearekin. 1527ko irailaren 26an, Iruñeko gotzainak sententzia bat eman zuen Juanes de Mercaderren aurka Goizuetako Marina de Berrasoetarekin adulterioa egiteagatik. Sententzia honengatik Mercaderrek urteko 12 nafar-dukak ordaindu behar izan zion bere emazteari.

Isunari erantzuteko, 1527ko azaroaren 25ean, Oyancho izeneko lursail bat saldu zion Pelegrin de Arpideri; 169 dukat eta 30 "*tarja*"-ren truke. Pelegrinek fidatzailearena egin zuen eta salmentaren dirua adulterioaren sententzia betetzeko erabili zuen. Oyancho²³ lur eremu handi bat zen eta Mercaderrek bi zatitan banatu eta saldu zituen.

Lehenengoa, handiena eta egoera basatiagoan zegoena, 1527. urtean saldu zuena da, "*tierra de mill e quinientos e tres pies de mançanos contando y entendiendose de pie a pie de mançano diez codos d'espacio*" lur eremu honen mugak honako hauek dira: "*un pedaço de tierra bazia que yo (Joanes de Mercader) he y tengo y poseo en la dicha tierra de Alça llamada e conoçida por este nonbre Oyancho, que ha por linderos de la una parte el mançanal mio llamado Oyancho, e por la otra parte tierras çensales de la yglesia de señora Santa Catalina desta dicha villa, e de la otra tierras e montes de Pascoal de Liçarça, e por la otra tierras de la fuente, e por la otra parte el camino real que ba de la dicha villa para Oyarçun, e por la parte debaxo el arroyo que dizen Madrigal.*"

Jabe berriak, bere jabetzaren seinale bezala edo, agian, Oyancho izen berdina zuen sagastiaz ongi bereizteko, lursail honen izena aldatu zuen eta Madrigal²⁵ izena jarri zion, lursailaren mutur baten ondotik pasatzen zen erreka eta iturriaren izena, hain zuzen ere: "*al presente algunos llaman el*"

23 "Oyancho" toponimoak baso-gune edo zuhaitzi txikia esan nahi du. Deskribatzailea da eta arrunta. Altzako lurretan bertan, Bidebieta aldean, garai horretan bazegoen beste Oyanchoa bat, Prordeprat etxearen jabetza zena. Leku hau gaur egun "Basotxoko malda" izenarekin ezagutzen dugu. (TELLA-BIDE: Registro...)

24 "Pie de manzano" delakoa ohiko azalera neurri bat da. Balzolarek taulak erabiliz, (1 besabete = 2 oin = 55,8 cm), Oyanchoko lur-eremuak 46.798 m² neurtuko luke. (BALZOLA: De las medidas...)

25 Madrigal gaztelaniatik hartutako izena da eta belar mota baten izena da, "matricaria herba"-rena alegia. Senda-belarra da, kamamilaren antzekoa. Avila-n dagoen Madrigal de las Altas Torres web-orriari esaten dute "madrigal" leonesismo bat dela eta ur asko biltzen den lekua izendatzen duela.

*mançanal de Madrigal por una fuente que es çerca el dicho mançanal llamada por el nonbre Madrigal*²⁶.

Pelegrin de Arpidek inbertsio handiak egin zituen jabego honetan. Berrogei gizon jarri zituen lanean, otadia kentzen, lurra prestatzen eta ontzen sagarrondo berriak landatzeko. Etxe bat eraiki zuen eta bertan jarri zituen bizitzen Juanes eta Maria de Labastida senar-emazteak bere seme Martinekin batera. Juanes de Labastida birritan azalduko da auzian “*casero de Pelegrin*” bezala eta etxea “*la caseria de Pelegrin de Arpide*” zango da. Denboraren poderioz, baserriak Pelegrinene izena hartu zuen eta Madrigal izena jatorrizkoa izendatzeko geratu zen, erreka eta iturria alegia, gaur egun 27 Poligonoak estali dituena²⁷.

Bi urte beranduago, 1529. urtean, Oyanchoko bigarren zatia saldu zuen Juanes de Mercaderrek. Dirudienez, zorrak ez ziren arindu, handitu baizik, eta dirua behar zuenez herriz herri ibili zen Esteban de Miranda auzokidearekin batera erosle bila. Arrakastarik izan ez zuten Pelegrin de Arpiderengana birritan jo zuten eros zezala eskatzeko. Azkenean amore eman zuen eta 584 sagarrondoko lursail hau erosi zuen 90 dukaten truke, hamar urtetan ordaintzeko.

Bigarren zati honen mugak honela deskribatzen digute: “*el mançanal Oyancho que a por linderos de la una parte el camino real con el pedaço de tierra que se atiene al dicho mançanal y entre el camino y por la otra parte tierras mançanales de vos el dicho Pelegrin de Arpide e por la otra parte a tierras e mançanales de Sabastian de Babaça llamado Marro*”. Dokumentuaren beste leku batean antzeko mugaketa egiten du baina gehitu egiten du Sebastian de Babaza “*el menor*” dela eta behealdean daudela “*las tierras de la presa del molino de Mãteo*” Oyanchoren lehen zatiaren salmentan irakurtzen genuen “*tierras çensales de la yglesia de señora Santa Catalina*”bera. Beraz, Oyancho hau eta aurrekoa bata bestearen ondoan daude.

Bestalde, mugaketa honetan Marrus eta Mateo-errotaren lehen aipamenak ditugu. Gaur egun Marrus bezala ezagutzen dugun baserria mendeetan Marroz eta “*Marroz la mayo*” bezala agertu zaigu dokumentuetan, Marrutxipi baserria Ategorrieta aldean zegoela. Bi etxe hauek Alcibar-Jaúregui maiorazkoarenak izan dira XVII. eta XIX. mende bitartean. Agirian garbi ikusten da Marroz pertsona horren izengoitia dela, eta seguruenik, “arlote, zarpail, zarpailtsu” esan nahi du²⁸.

26 VEKA. Civiles. Varela. Fenecidos. C 3746/5 - L 736, fol. 495

27 TELLABIDE: Registro..., 141. or.: “MADRIGALEKO ITURRIYA: Manantial desaparecido. Era de aguas excelentes, que según creencia popular fueron analizadas en Madrid, de ahí su nombre.”

28 MICHELENA: Orotariko...: “marroiz, marro(i)x, marruiz, marrux: Andrajoso, ajado, desaliñado...”

Mateo-errota, berriz, Santa Katalina elizarena zen, eta ondorioz, bere patroia Jerusalemgo San Joan Ordena²⁹ zen. Orden hau ezaguna zen ere Rodasko San Joan izenarekin, eta hortik dator Alzako lurretan, Otxoki aldean, kokaturik zegoen Orden honen beste jabetza baten izena: Rodas baserria, Arroas izenarekin ere ezagutu duguna. Bai Rodas, baita Mateo-errota ere, Enkomiendarena izan ziren 1674. urtera arte, Villalcazar-ko konteak erosi zituen arte. Aguirre Sorondok³⁰ jaso duenez, errotak Ujua, Madrigel eta Zakullarte erreketatik hartzen zuen ura.


Merkader etxera itzuliz, leinuarentzat unerik gogorrena, Juanes de Mercaderrentzat bereziki, etxea eta jabetza guztien salmenta izan zen. Saldu eta handik zortzi egunera hil zen. Zorrak eta zordunen presioa eramangaitzak ziren. Juanes de Mercaderrek dirua zor zion jende askori eta, antza denez, Mirasungo nagusiarekin egin zituen negozioek ere porrot egin zuten, eta honek ere, Mercader bezalaxe, etxea eman behar izan zuen zorren ordaina bezala. Hau guztia nahikoa ez bazen, artean ordaintzear omen zuen arrebaren baten legitima. Aita hil zenean, Juanes geratu zen jabetza guztien oinordeko, baina bere arrebei, Maria Martin, Simona eta Catalinari zegokien legitima ordaindu behar zien. Maria Martin, Martin de Darietarekin ezkondu zen, aita artean bizirik zegoela, eta dote bezala 200 florin, arropa eta arreoak jaso zituen. Simona, aita hil ondoren, ezkondu zen Errenteriako Esteban de Irisarriarekin eta Merkaderren lurretan etxe bat egiteko orubea eman zioten. Hirugarrenari, Catalinari, lursail bat egokitu zitzaion eta bertan sagasti bat landatu zuen. Simona hil zen eta bere senarra beraien seme-alaben izenean, Joanes, Perona eta Maria Perez, auzian sartu zen, Simonaren dotea bere osotasunean jaso ez zuelako.

Merkader etxea 1539ko martxoaren 11an saldu zioten Domingo de Zubieta errenteriarrari, 480 urrezko dukaten truke. Agiriak esaten duen bezala, salmentatik kanpo utzi zuen auzipean zegoen Oyancho sagastia, "*que de presente tiene e posee Pelegrin de Arpilla*" onetatik aparte, hauek dira Merkader etxearen jabetzak:

- a) Merkader etxearen muina: "*tienen por linderos es a saber de la una parte el camino real que van de la dicha villa de San Sebastian para La Renteria e Oyarçun e por otra parte comenzando del dicho camino azia abaxo las tierras*


29 Hernaniko Agiritegia, E, Neg. 7, Ser. I (Relaciones con autoridades judiciales), Libro nº 1, Exp. nº 13 (pág. 104): "Probanza practicada en virtud de carta receptoria de la Chancillería de Valladolid, a pedimento de Sebastián de Zapiain y consortes, vecinos de San Sebastián, contra Joan Ramus de la Parada y su mujer, vecinos de Alza. En el curso de la información se dice que el molino de Mateo de San Sebastián era de los Comendadores de Rodas,- Juan López de Araeta (1611)".

30 AGUIRRE: Tratado..., 453. or.



Pelegrineneko inguruak 1539. urtean

Pelegrinene "La caseria de Pelegrin"



Pelegrineneren inguruak (Iturriak: Josu Tellabide; www.b5m.gipuzkoa.net)

de los herederos de Martin Arano de Hoa ya defunto e tierras del dicho Pelegrin de Arpide asta dar en el arroyo que va por las dichas tierras para Molinao e dende el dicho arroyo azia arriba asta dar por otra parte en el camino real que van de San Sebastian y Hernani y Astigarraga a la yglesia de San Marçal tiene por linderos las tierras e mançanales de la casa de Miranda e dende el dicho camino e asta dar en otro arroyo que corre por las dichas tierras de Mercader e por las tierras de las dos Carboeras para la Herrera y dende el dicho arroyo yendo por la parte de arriba tiene por linderos los mançanales de la Carbonera de abaxo hasta dar en los mançanales de Juan Peres de Yllarradi e tambien de alli adelante hasta dar en el dicho camino que van de la dicha villa de San Sebastian a La Rentena e Oyarçun por junto al seto del mançanal que dizen Sagastichipi los quales dichos linderos çerran y rodean la dicha casa de Mercader e sus pertenencias

- b) Alaonteandia, beste altzatarrekin batera partzuergoan zeukana: “*e junto con ello vos vendo la parte de çierta tierra e argomal que a la dicha casa le pertenecen en lugar que se dize Alaonteandia la qual dicha tierra argomal fue comprada entre çiertos vecinos e moradores de la dicha tierra de Alça al conçejo de la dicha villa de San Sebastian para pasto e largura de su ganado e la dicha casa de Mercader fue una de las que compraron en hau segu-ruena inguru hauetan baina Astigarragako udal terminoan dagoen Alanorekin zerikusirik dauka. Baserri hau 1573. urtean Alano-chipi³¹ izenarekin ezaguna zen eta bere jabea Nicolas de Ayerdi zen.*
- c) Atanao, egungo Bordazar baserriaren ondoan: “*e tambien vos vendo otr pedazo de tierra de çient e çinco pies de mançanos que esta en lo alto que dizen de Atanao pegado a la peña e a tierras conçeçiles de la villa de La Renteria el qual dicho pedaxo de tierra huve en troque a cambio de la casa de Chipres por otro pedaço de tierra e monte que yo le di junto a la dicha casa de Çhipres*
- d) Jarlekuak eta hilobiak San Martzial elizan: “*vos vendo el derecho y abçion que la dicha casa tiene en los asyentos de la Yglesia de San Marçal con las fue sas e sepulturas que en la dicha yglesia tiene con que yo e mis fijos y hermanas nos podamos enterrar en las dichas sepulturas e dende en adelante queden para la dicha casa como cosa a ella añexa*

Konklusioak

XVI. mendearen lehen erdian zehar, populazioaren handitzearekin eta itsas merkataritzaren indartzearekin batera, Altzako eta inguruko beste

³¹ ARANZADI Z.E.: Astigarragako Gidaliburua, 64. or.

lurraldeetan nekazal ustiaketek gora egin zuten, funtsean, sagarra eta sagardoaren inguruan. Honek ekarri zuen lur askoren laborantza aldaketa, larretik sorora, basotik sagastira, eta, honekin batera, baserri berri askoren sorrera. Baserri horietako bat da Pelegrinene, lehen momentuan Madrigal izena izan zuena.

Baserri berri hauek martxan jartzeko inbertsio handiak egin behar zituzten: lurra erosi, luberritu, goldatu, ongarritu eta landaketa, baserria eraiki eta mantendu. Gorakada honetan Altzako etxerik garrantzitsuenek (Arzak, Casares...) protagonismo nabarmena izan zuten baina protagonismoa ez zen haiena bakarrik izan. Altzatik kanpo, Donostia eta Errenteriako hiribilduetan, bizi ziren merkatari eta mailegu-emaile asko nonahi ikusiko ditugu beraien irabazkinak jarduera seguru eta errentagarri hauetan inbertitzen. Fenomeno hau ez da berria Altzan, Erdi Aro osoan joera hau ezaguna baitzen, baina une honetan biziberritze aipagarri bat ezagutuko du koiuntura ekonomikoak bultzatuta.

Nekazaritzaren gorakada honen ondorioz altzatarren arteko mailaketa soziala handitu zen. Altzako biztanleak, "moradores", Donostiako auzokideak "vecinos" ziren hiribarruan bizi zirenak bezala, baina bizitza politikotik baztertuak zeuden eta ezin zuten kontzejuaren ofizioetan parte hartu. Ondasunen pilaketarekin batera, batzuk lortu zuten maila sozialez igotzea eta hiriaren karguetan sartzea, hala nola, Larrachao, Estibaos eta Lizardi-ren kasuetan Donostian, edo Chipres Errenterian. Altzako unibertsitatearen barruan, baserri berrien sorrerarekin, altzatarren arteko aldeak handituko dira, bi multzo bereiztuz: Altzako etxeen nagusiak, abizena ematen zuten etxeen jabeak, eta baserritarrak, berea ez zen baserria zaindu eta bertan bizi eta lan egiten zutenak. Aztertu ditugun dokumentuetan ikusi dugun bezala, ekonomiaren koiunturarik hoberenean ere, gerta zitekeen dena galtzea eta mailaz jaitea, Juanes de Mercader eta Domingo de Mirasuni gertatu zitzaizen bezala, etxeke jauna izatetik baserritar xume bihurtzera.

Merkader etxearen kasuan ikusi dugun bezala, baserri berrien lurak batez ere herri-lurren kontu sortu ziren. Urumeako zilegi mendiak alde batera utziz, Altzan herri-lurak bi mendialdetan biltzen ziren: Ulia mendiaren bi aldetara, eta Molinaora doazen erreken ondoko lurretan, San Markosen magalean. Donostiako kontzejuak, beste arrazoen artean bere gastu handiei aurre egin ahal izateko, XV. mende amaieran kontzejuaren lurak saltzeari ekin zion. Erosleen artean aipatutako hiritar pribilegiatuak ikusiko ditugu, baina baita altzatarrek ere. Altzatarrek hiru modu ezberdinez ikusiko ditugu lurak erosten: Altzako unibertsitatea, San Martzial parrokiaren inguruan bilduta, izango da bat; Altzako etxe nagusiek ere lurak erosiko dituzte bere

jabetzak handitzeko; eta diru nahikoa ez dutenean, altzatar etxe multzo bat bilduko da lur eremu bat erosteko, partzuergoak osatuz. Lurren erosketa eta okupazioa ez zen aldi berean egin, pixkanaka izan zen, abiapuntua Errenteria eta Donostiaren arteko errepidea eta Donostia eta Oiartzungo Bailararen artekoaren inguruko lurak izan zirelarik.

Nolanahi ere, lurraren pribatizazioa ez zen erosketen bitartez soilik burutu. Altzan ere ezagutu genituen bidegabeki lorturiko jabetzak. Izan ere, auzi bat egon zen 1523. urtean Altzako unibertsitatea eta Txipres etxearen artean gaur egun Landarro izenez ezagutzen den mendialde horren jabetzagarik³². Bai partikularrek, baita unibertsitateak ere, kontzejuaren lursailak isilpean berenganatzen ahalegindu ziren kontzejuaren axolagabekeria aprobetxatuz. Eta hau posible bazen XV. mendearen lehen erdialdean, ezinezkoa bihurtu zen XVI.ean. Lurraren balorea, beste arrazoen artean basoaren ustiaketak ematen zituen etekinengatik, asko igo zen eta kontzejuen lurrarekiko ardura biziberritu zen³³.

Altzako lurraldeak ezagutu zituen aldaketa sakon hauen artean sortu zen Pelegrinena baserria, sagardoaren ekoizpenerako soilik. Pelegrin de Arpide izeneko burges donostiar batek sortu zuen Merkader etxearena zen Oyancho deitutako lur eremuan. Jabe berriak baserri berriari Madrigal izena eman zion, Mateo-errota ondoan zegoen iturriaren izena, hain zuzen ere, baina bizilaguentzat baserri hori Pelegrinena zen, "la caseria de Pelegrin".

32 VEKA, Reales Ejecutorias, C 361/31

33 1597. urtean Mirasungo jabeak ziren Tomas de Guruceaga eta bere emaztea Maria Lopez de Guruceaga atxilotuak izan ziren Merkader eta Mirasun etxeen artean zeuden herri-lurretan haritzak mozteagatik (MURUGARREN: Cuadernos..., 486. or.)

BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Tratado de Molinología*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988.
- AROCENA, Fausto: "Rutas de peregrinos en Guipúzcoa". In *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* (1957), 10-17 or.
- Iden: "El Camino de Santiago". In *Guipúzcoa en la Historia*. Madrid: E. Minotauro, 1964, 37-46 or.
- BALZOLA: *De las Medidas Superficiales de Guipúzcoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1917
- CALVO, Angel M^a; LOPEZ, Manuel: "Cruces de Piedra en cumbres y fachadas de caseríos guipuzcoanos". In *Altza, Hautsa Kenduz* II. Altza: 1994, 85-96 or.
- DIEZ DE DURANA, J. Ramón: "Transformaciones en la titularidad y aprovechamiento de los seles en Guipúzcoa (1450-1550)". In *La España Medieval* nº 21 (1998), 69-96 or.
- DONOSTI, José M^a: "San Sebastián en el Camino de Santiago". In *Temas, pueblos y paisajes de Guipúzcoa*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y publicaciones, 1965. 33-67 or.
- GANDASEGUI LARRAURI, José Manuel: "El trabajo del campo donostiarra en el siglo XVI". In *BRSVAP*, XIX (1963), 3-37 or.
- GOÑI GAZTAMBIDE, José: "Las parroquias de San Sebastián en 1723". In *BEHSS* 5 (1971), 247-262 or.
- HUIDOBRO SERNA, L.: *Las peregrinaciones Jacobinas*. Madrid: 1949-1951.
- LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; LEMA PUEYO, José Angel: *Colección de documentos medievales del Convento San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- LEKUONA, Manuel: "Santiyago-bideak Gipuzkoa'n zear". In *Idaz-lan guztiak 2-Euskal Etnografia*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1983. 301-307 or.
- Iden: "Los caminos de Santiago por Guipúzcoa". In *Idaz-lan guztiak 2-Euskal Etnografia*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1983. 309-315 or.
- Iden: "Hablando de rutas y vías en Guipúzcoa". In *Idaz-lan guztiak 2-Euskal Etnografia*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1983. 317-325 or.

Iñigo Landa Ijurko

- Iden: Las antiguas calzadas a través de San Sebastián. In *Idaz-lan guztiak 2-Euskal Etnografia* Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1983. 331-347 or.
- Iden: Los Caminos de Santiago factor de nuestra Cristianización. In *Idaz-lan guztiak 2-Euskal Etnografia* Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1983. 349-358 or.
- MICHELENA, Luis: *Apellidos vascos* Donostia: Txertoa, 1984 (4. edizioa)
- Iden: *Orotariko Euskal Hiztegia* Bilbo: Euskaltzaindia, 199.....
- MUJICA, Serapio: *Curiosidades históricas de San Sebastián* Donostia: Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra, 1970.
- MURUGARREN ZAMORA, Luis: *San Martín, barrio y parroquia donostiarra*. Donostia: Aurrezki Kutxa Munizipala, 1996
- Iden: "Cuaderno de extractos de los acuerdos del ayuntamiento de San Sebastián". In *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (1996)
- ORELLA, José Luis: *Las raíces de la Hidalguía Guipuzcoana* Donostia: Deustoko Unibertsitatea, 1995.
- ORELLA, José Luis; KORTADI, Edorta y Equipo universitario: "El camino de Santiago en Guipúzcoa. De Zuberno a Zalduendo". In *Cuadernos de Sección: Artes Plásticas y Monumentales*
- PEÑA SANTIAGO, Luis Pedro: "Pelegríne". In *Diario Vasco* 1974-12-8.
- TELLABIDE, Josu: "Pelegríne". In *Irutxulo* (8) 1994-6-3.
- Iden: *Donostiako Erregistro Toponimikoa / Registro Toponímico Donostiarra* Donostia: Kutxa, 1995
- VAZQUEZ DE PARGA, Luis; LACARRA, José M^a.; URÍA RIU, Juan: *Las Peregrinaciones a Santiago de Compostela* Madrid: CSIC, 1948, 3 liburuki.